



Euskararen erabilera plana

Bilboko Udala

(V. plangintzaldia, 2013-2017)





Helburua:

Herritarrei hizkuntza ofizial batean zein bestean zerbitzua ematea eta, horretarako, herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dituen administrazio elebidun bilakatzea.



Euskararen **ahozko erabilera** handitu



Euskararen **idatzizko erabilera** handitu



Euskararen erabilera handitu **irudi korporatiboan**



1979

3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutua 6. artikulua:

1.-Euskara, Euskal herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiak dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.
2.-Autonomia Erkidego osorako erakundeek, Euskal Herriaren aniztasun sozio-linguistikoa kontutan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dute eta bion ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituzte.



1982

10/1982 Legea, Euskararen erabilera normalizatzeko Oinarrizkoa 6. artikulua:

1. Herritar guztiei aitortzen zaie, Autonomia Erkidegoaren lurraldean, herri administrazioarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta beren aukerako hizkuntza ofizialean hartuak izatekoa.

Horretarako, neurri egokiak hartuko dira eta beharrezko baliabideak bideratuko eskubide hori arian-arian gauzatu dadin bermatzeko.

B



Itzulpen
zerbitzua
sortu
1980

Euskara
zerbitzua
sortu
1985

ERABILERA PLANA
onartu
Osoko Bilkuran
1999



V. PLANGINTZALDIA

2013-2017



1989

6 / 1989 Legea,
Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa
V. Idazpurua

*Lanpostu bakoitzaren hizkuntza
eskakizuna eta, zegokion kasuan,
derrigortasun data zehaztu zuen.*



1997

86/ 1997 Dekretua,
Euskal Autonomia Erkidegoko
Administrazio Publikoetan
Euskararen erabileraren normalizazioa
arautzen duena.

*Hizkuntza eskakizun bakoitzak
dagozkion hizkuntza gaitasunak, berauen
egiaztapena eta administrazio unitate
elebidunak zehaztu zituen.*

1990ean

Euskararen ezagutza
%10ekoa zen bai bilbotarren
kasuan, bai udal langileen
artean

%10



2014an

Bilbotar euskaldunak %23
udal langileak %43

%23

%43



Oinarrizko kontzeptuak

Hizkuntza eskakizunak



*Lanpostuaren zereginak
betetzeko
beharrezkoa den
euskara maila*

◇ HE1

◇◇ HE2

◇◇◇ HE3

◇◇◇◇ HE4

Hizkuntza eskakizuna lanpostu guztien ezaugarria da, eta derrigortasun data lanpostu jakin batzuei dagokie.

Derrigortasun data



*Data horretatik aurrera
hizkuntza eskakizuna
egiaztatuta izatea
ezinbesteko baldintza
da lanpostuaz jabetu eta
lanpostuaren zereginak bete
ahal izateko.*

Lanpostu jakin batzuei ezartzen zaie, herritarrekin duten harreman zuzenaren maiztasuna eta udal organigraman duten garrantzia kontuan hartuta.

Derrigortasun data ez da sail guztietan berdintsu ezartzen; lehentasuna duten unitateetan ezartzen dira, batez ere.

B

Derrigortasuna duten lanpostuen indizea



Hizkuntza eskakizuna betetzea ezinbestekoa duten lanpostuen ehunekoa da, eta formula hau aplikatzen zaie Erroldatik hartutako datuei:

$$\text{Euskaldunak \%} + \text{ia-euskaldunak \%} = \text{derrigortasun indizea}$$
$$\%24 + \%24/2 = \%36$$

Udal langileen %43ak egiaztuta du dagokion hizkuntza eskakizuna



ZERBITZU HIZKUNTZA

Herritarrak artatzeko hizkuntza



LAN HIZKUNTZA

Barruko funtzionamendurako hizkuntza

B



Hizkuntza Paisaia

Hizkuntza ofizial bietan idatzita egongo dira:

- Udal eraikinetako errotulazioa
- Emakida erregimenean dauden instalazioetako errotulazioa
- Trafiko seinaleak
- Kaleetako plakak
- Udalak jarritako edo bultzatutako panelak
- Udal langileek jarritako informazio kartelak



Hizkuntza ofizialen erabilera

Ahozko komunikazioa

Udal administrazioa herritarrari euskaraz zuzenduko zaio, herritarrak aukeratutako hizkuntzan jarraitzeko.

Irizpide bera beteko da Udaletxe barruko harremanetan zein beste administrazio publikoekiko harremanetan.



Idatzizko komunikazioa

B

Mezu elektronikoak

Informazio edo zabalkunderako mezuak **hizkuntza ofizial bietan idatziko dira**, hartzaile talde bati, herritarrei edo udal langileei zuzentzen bazaie.

Inprimakiak, galdetegiak,... hizkuntza ofizial bietan idatzita egongo dira, eta idazkiaren herritar erabiltzaileak aukeratuko duen hizkuntzan jarraituko zaio harremanari.

Gaitasuna duten udal langileek dokumentazioa hizkuntza ofizial batean zein bestean sortu dezaten sustatuko da.

Dokumentazio elebiduna estandarizatzeko dokumentu-ereduak sortuko dira.

Langileen gaikuntza



HIZKUNTZA FORMAKUNTZA

EUSKARA
IKASTEKO IKASTAROAK

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EROKAL ERAKUNDIA

e/e BI

TREBAKUNTZA

Euskara ikasteko zein hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko deialdiak eta baldintzak aldiro jakinarazten zaizkie udal langileei.

Trebakuntza saio espezializatuak eskaintzen zaizkie, lan ordutegi barruan, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten udal langileei.

B



Hizkuntza Irizpideak



IRUDI KORPORATIBOA

EKITALDI OFIZIALAK
Udal ordezkariak hizkuntza ofizial biak erabiliko dituzte modu beretsuan, jardunaren hurrenkeran euskarari lehentasuna emanez.

PRENTSAURREKOAK
Udal ordezkariak, korporazio kide zein teknikari izan, hizkuntza ofizial biak erabiliko dituzte modu beretsuan.

Ahalegin berezia egingo da prentsurrekoetan parte hartzen duten gonbidatuek hizkuntza ofizial biak erabili ditzaten.



ETENGABEKO FORMAKUNTZA

Formakuntza arloko euskarazko eskaintza handitu egingo da.



ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Herritarrekin harreman zuzena eragingo duten zerbitzu publikoak, hirugarren batek bete arren, Bilboko Udalari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza beretsuetan gauzatuko dira, administrazio-baldintzen plegetan hizkuntza baldintzen atalean ezartzen den moduan.



LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Udal laguntza edo diru-laguntza duten ekimenetan hizkuntza ofizial biak erabiliko dira oinarri arautzaileek ezarritako moduan.



ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILERA

Emandako baimenak hauxe dio ezarritako baldintzetan:

"Baimendutako ekimenetan antolatzaileak ardua bereziaz jokatu eta zainduko du elebitasuna (euskara-gaztelera) ekimenaren zabalkunde arloan, baita horretarako egoki diren instalazioetako euskarrietan".



APLIKAZIO ETA TRESNA INFORMATIKOAK

Herritarren esku egongo dira hizkuntza ofizial bietan. Lanerako tresna informatikoak udal langileei aukera emango die aukeratzen duten hizkuntza ofizialean erabiltzeko.



ALDIROKO ARGITALPENAK

Hizkuntza ofizial bietan idatzita egongo dira, hizkuntza biekin tratatu beretsua emanda.

Baliabideak



Euskara Zuzendariordeztza

Euskararen Erabilera Planaren planifikazioa da bere zeregin nagusia; berau gauzatzeko aholkularitza, jarraipena eta ebaluazioa.

Ikuspegi honetatik, Itzulpen Zerbitzua beste tresna bat da administrazio elebidunerako bidean, apurka-apurka hizkuntza zuzenketa eta homologazio zerbitzu bihurtuko dena.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika

Erabilera Planaren irizpide orokorrak eta lehentasunak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diseinatzen ditu; era berean, Planei oniritzia ematen die, eta planak koordinatu eta ebaluatu ere egiten ditu dagokion administrazioarekin batera.

B

ENBA batzordea

Euskararen Erabilera Plana elikatu, koordinatu, ebaluatu eta zabaltzeko ardura du, egoki ikusten dituen proposamen eta hobekuntzen bitartez.

Batzordean udal langileok gaude ordezkaturik, baita Giza Baliabideen Saila eta Euskara Zuzendariorde eta ere.

Giza Baliabideen saila

Hizkuntza eskakizuna eta, horrela badagokio, derrigortasun data lanpostuari dagozkion ezaugarriak direnez beraien kudeaketa Giza Baliabideen Sailaren ardura da, baita euskara ikasteko zein eskakizunak egiaztatzeko prozeduren arloa ere.

Udal langileak



Udaleko langileok gara Euskararen Erabilera Planaren protagonista nagusiak.

Bereziki gure lanpostuaren hizkuntza eskakizunean derrigortasun data ezarrita dugunok.



INFORMAZIO INTERESGARRIA

Euskararen Erabilera Planaren inguruko zalantzak, iradokizunak eta abar → erabileraplana@bilbao.eus

Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko deialdiak eta euskara ikasteko deialdiak → euskerarrhh@bilbao.eus

Hizkuntza normalizazioa → **ATARIA/ Hizkuntza normalizazioa**

Zalantza terminologiko, testu laburren zuzenketa, dokumentu ereduaren proposamena → trebakuntza@bilbao.eus

Trebakuntza ikastaroen eskaintza (noiz, zeintzuk...) → euskera@bilbao.eus

DOKUMENTUAK ITZULTZERA BIDALI NAHI BADITUZU, → **ITZULPENAK aplikazioa**
erabili aplikazio hau, Cimubisari aplikazioa jartzeko eskaria egin ondoren